

OTXARMETRAJE

TULAR elkarteak OTXARMETRAJE Film Laburren Lehiaketa antolatu du Otxarkoaga auzoa ezagutarazteko, auzoa bera ikusentzunezko proiektuetan eszenatoki gisa erabiliz. Film laburra egiteko epea bi astekoa izango da eta auzoko leku ezberdin eta dendak erabiliko dira grabaketa leku bezala.

GAIA

Librea. Gutxienez auzoko denda bat eta leku ezagun bat agertu beharko dira.

(Parte hartzaileek euren ekipoa eraman beharko dute).

SARIAK

Lehiaketan aurkeztutako lanak **Urriaren 21an, 20:00etan** proiektatuko dira Otxarkoagako Udaltegian eta ondoren sari banaketa egingo da.

- Lehen Saria: 400 €.(Otxarkoaga azoka)
- Bigarren Saria: 150 €.
- “Otxarkoagako Merkataria Elkartea” Akzesita saritu gabeko Otxarkoagako egile onenari: 100 €.
- “Aixe-Berri konpartsa” Akzesita saritu gabeko euskaraz egindako lan onenari: 100 €.

Parte-hartzaileek izena emateko eskaera bat bete ahal izango dute www.otxarkoaga.es web orrian **Urriaren 1etik 10ra** edo ((C/zizeruene 30 1º) **10ean**.

Laburmetraiak Urriaren **12tik 19ra** arte entregatu ahal izango dira artxiiboak bidaltzeko web orri baten bitartez (Wetransfer), info@otxarkoaga.es [helbidera edo bestela Otxarkoagako \(\(C/zizeruene 30 1º\) Urriaren 20tik](#)

Informazio gehiago: info@otxarkoaga.es | www.otxarkoaga.es | 946 410 479

OINARRIAK

PARTE-HARTZEA

1. Otxarmetraje Jaialdian nahi duten guztiek parte hartu ahal izango dute, inolako mugarik (adina, nazionalitatea) ez dagoelako.
2. Parte-hartzea taldeka egingo da eta bakoitzak gehienez 7 kide izango du.
3. Jaialdian parte hartu ahal izateko, aurretik izena eman behar da www.otxarkoaga.es webgunean edo (C/zizeruene 30 1º) eta hurrengo datuak beharrezkoak izango dira::
 - Taldearen izena.
 - Taldearen arduradun baten izen-abizenak eta NAN zenbakia.
 - Taldearen arduradunaren telefono zenbakia.
 - Taldeko kide guztien izen-abizenak.
 - Taldeko kide guztien helbide elektronikoa.

IZEN-EMATEA

Parte-hartzaileek izena emateko eskaera bat bete ahal izango dute www.otxarkoaga.es web orrian **Urriaren 1etik 10ra** edo (C/zizeruene 30 1º) **10ean**.

BALDINTZAK

1. Laburmetraiak Urriaren 12a eta 20a bitartean egin beharko dira.
2. Film laburrak euskaraz zein gaztelaniaz aurkez daitezke..
3. Gaia librea da. Baldintza bakarra da gutxienez auzoko denda bat eta leku ezaugarri batzuk agertzea (Auzo Etxea, Autobus Geltokia,...)
4. Kanpoaldeko lekuen %100 Otxarkoagako auzoan errodatua izan beharko da.

5. Film labur bakoitzaren iraupena ez da 4 minututik gorakoa izango, kreditu-izenburuak barne. 4 minutuko iraupena gainditzen duten lanek ezin izango dute saririk jaso.
6. Filmek jatorrizkoak eta argitaragabekoak izan beharko dute. Egile-eskubideei buruzko legeria hautsiz gero, antolatzaileek ez dute horren erantzukizunik izango.
7. Obretan erabiltzen den musikak ezin izango ditu egile eskubideak izan (jamendo.com adibidez edo YouTube-ren artxiboan).
8. Adingabekoa den edozein gazteren parte-hartze tekniko zein artistikoaz baliatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da tutorearen baimena aurkeztea..

EPEAK

Lanak jasotzeko epea **Urriaren 20a** amaitzen da. Egun hori baino beranduago entregatutako lanek ezin izango dute saririk jaso.

Laburmetraiak bi modu ezberdinez bidali ahal izango dira:

- Artxiboak bidaltzeko web orri baten bitartez (Wetransfer) info@otxarkoaga.es hebide elektronikora. **Urriaren 13tik 20ra.**
- DVD edo USB batean (behar izatekotan elkarteak emango du izen emateko egunean) Urriaren **13tik 20ra** Otxarkoagako Udaltegia.

Laburmetraiak honako formatuan aurkeztu behar izango dira: Codec H.264, progresibo, 16:9, 25fps.

HAUTAKETA ETA SARI BANAKETA

Lan guztiak proiektatuak izango dira **Urriaren 21an, arratsaldeko 20etan** Otxarkoagako Udaltegia.

Parte hartzaileei eta publikoari Mahatserri Kultur Elkarteak prestatutako luntx bat eskainiko zaie eta honen ostean sari banaketa ospatuko da.

Film laburreko garaileak aukeratzeko, antolatzaileek hiru pertsonaz osatutako epaimahaia izendatuko dute: euskal ikus-entzunezkoen munduko profesional bat, Bilboko Udaleko ordezkari bat eta elkartearen kide bat.

SARIAK

Lehenengo sailkatuek hurrengo sariak jasoko dituzte:

- Lehen Saria: 400 €.
- Bigarren Saria: 150 €.
- “Otxarkoagako Merkataria Elkarteak” Akzesita saritu gabeko Otxarkoagako egile onenari: 100 €.
- “Aixe-Berri konpartsa” Akzesita saritu gabeko euskaraz egindako lan onenari: 100 €.

Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

Partaideek antolatzaileei burututako film laburren komunikazio publikorako, erreproduktzioarako eta banaketarako eskubideak ematen dizkiete.

Lehiaketa honetan parte hartzeak hemen aipatutako oinarriak onartzea dakar.